

Hirugarren aldiz etsi beharko?

Geru eta azkarrago doaz guzak Portugalen. Ordu bakoitzak dakarkigu orain bere harrigarria; eta ni, gaur Ekainaren 19an, beste asko bezala, irratizko berrieta adu nago, kezkatutako oso, Lisbona azkenean zer gertatuko. Portugalen gertatzen ari denak inportantzi handia izango baitu gure herriarentzako; baina baiak, eskerri hau ere, Mendebaldeko erresumetako politika-gintzan, eta sozialismoaren etorkizunean ere.

Elkarri darraigiko gertakari larriak, gero eta hurbilagoak. Spinolaren joaria, Maiatzaren Leheneko gertaera hitsak berak, ahanzi egun dira. Kaurkoa bixartzeko "gaidintza". Hau habaila! Sukar horretan zer gaitenduko?

Gauza batek dirudi seguru bederen: bozek, hauteskundeak, "elezioek" alegia, deusik ez dutela adatu, eta ez aldatuko. Sozialisten garaitzearen apartak ez die ezer ekarri, kezka eta beldurraz besterik; hautabide horiek ez baitira ezer, izan, "iraultzaeren legetasun" (?) delakoaren parean... Askatasuna eta elkarizketa posible direlarik, ordea, zer debruk eman dezake legetasuna? Norke oto dauka Jainkoaren garazia? Norke esan dezake, besteak beste isil eraziz: "Nihaur nauk Egia!".

Zeren-eta "Republica-ren arazoak garbi utzi duenaren arabera, komunisten jokoa "hala biz" esatea ez den gutzia, "burgesia-ren alderdian erortzea baita! Jukutria zaharra!" "Republica" sozialista zen: horra hor garbitu ezinezko hobien izugarria!

—oO—

Hots, dakigunez, ezkerarren arteko burruka ez da ekonomia-aren mailan mamitu. Bankuak, asurantzak, hegazkinak, petrokimika, burdingintza, garraioak, eta abar, naziotatu direlarik, sozialistek ez dute aurkako hitzik batere bota. Txalotu egin dute, haien zuzen; Europako sozialista gutxiak nazionalizazio horiek begi onez ikusten dituztelako.

Datorren udazkeneko Portugaloko ekonomia-aren % 70 gobernuaren eskutuan egongo da; eta, honi buruz ere, ezkerarren artean ez da lituririk gertatu. Sozialista guztiak onartzen dute eta bultzatzen kapitalismoaren akabera, eta Soares-ek ere bai. Gogorazi beharrik ahal da-go?

Areago. Bi ekonomi-bide proposatu bide zaizkio M.F.A.-ri. Bata, Lanaren Ministeriaren bitartez, komunisten pleguoa: ekonomia goitiki behera eramateko moduko, industriari lehenatsuna, eta abar; edozein erresuma "populaire" horietako kopiatuz, hitz batez. Bestea, berriz, Industriaren Ministeriaren bitartezkoa, autojestioaren itxurakoa: lantegiak langileen beren eskutan jartzearen aldekoa, plangintza laxo baten barruan, eta abar. Itxura denez, M.F.A.-k bigarren bide hau nahiaigo omen du.

Costa Gomes Lehendakariak, bai Frantzia bai Portugalen bertan, sozialismo anizkor, "pluralista", dogmagabe bat nahi duela esan du behin eta berriz. Puntu honetan ere, hortaz, eta dirudenez, M.F.A.-ren parte nagusia ez dago Cunhal-en alderdiarekin oso loturik. Alderantziz dirudi. Militarrak, beren gehiengoan bederen, ez omen dute "alderdi bakar"rik nahi. Eta oraintxe, gaurko eguerdi honetan, beste deklarazio bat egin du M.F.A.-k bide beretik: "pas de parti unique au Portugal" entzun berri dut irratian.

Militarrak, beraz, gauza bikain asko egin dute gaur arte herriaren alde: herriari politik-askatasuna eman, koloniak beren buruez nagusitzera utzi, kapitalisten zapalkuntza moztuz joan... Ez da gutxi, alajainkoa! Badu M.F.A.-k bere alde zer erakutsirik! Ohore haiei!

Nola konpreni, hortaz, Portugalen gaur gertatzen ari dena?

Galdera honi buruz badira, besteak beste, bi irizkera. Lehenengoaren arabera, hau esan omen daiteke: "Ez dakigu batere Portugalen gertatzen denaz. Gauza ez dago garbi. Sekula ez da horrelakorik ikusi". Jakina: hori dionak, eta sentidu batetan behintzat, "suspensio" segurtatua du politika kontuetan; eta ez du errespetu handiagorik merezi, politika kontuetan, euskara ezagutu gabe Euskara Ba-

tuari buruz mintzo denak baino! Portugalen gertatzen dena, zenbait delatetik batez ere, gutziz ezagun da.

Bigarrenaren arabera, berriz, hau esan daiteke: "Portugalen politika talde bakar bat egin behar da, iraultza bakarra egiteko, argi bakararen argitan: marxismoaren argitan. Alderdi "burgese" guztiak debekatzeko hobe". Irizpide hau, jakina, Italiako Alderdi Komunistaren iriztia ez bada ere, "Pravda"-rena da, eta G. Marchais-ena ere bai.

Jendeen banaketa hori ezin tris-tagarriagoa da; zeren-eta argiro erakusten baitu, alde batetik, komunistak ez direnek ikusiz ere ez dutela ikusi nahi; eta, bestetik, Stalin hilda 22 urtetara, marxista-leninistak ez direla milimetro bat ere aldatu: beraien totalitarismoa onartu, ala burgeskumeentzako paretara.

—oO—

Errua, guztiagatik ere, ez da osoki komunistena. Komunistek sineztsi egiten dute predikatzeko dena, lan egiten dute gogotik —Salazar-ekin edo Salazar gabe— beren helburuen alde, elkar-aditurik eta ohoreetatik landa askotan jokatzen dute, isilpea eta zikindu-beharrak ontzat ematen dituzte, kondairaren erakuspenak kontutan hartzen, eta behar diren arriskuak zamatzen. "Praxis" honek biltzen dizkie osteak; hauek teorietz eta datorkeen geroraz zipitzik ulertzen ez dutelarik ere, eginak ikusten dituztelako. Komunistak apostolu dira, Ekintza-nahi eta fede horietagatik norke kondatuko?

Eta bihur gaitezen orain Lisboara.

"Intersindical"-az hitz egin du CFDT-ko J. Moreau-k (ikus "Nouvel Observateur", 16-VI), eta hau esan: "on s'est aperçu très vite que les communistes étaient fortement majoritaires". Orain dela 20 urte hasi zuen P.C.P.-ak infiltraziolana, eta orain utzi biltzen.

Unibertsitatean, era berean, infiltrazio gaitza omen dago: bisitari batzuek jakin erazi dutenez, ikasgu askotan dira nagusi komunistak.

Zer esango beste erakunde batzuez? Kasetari guztiak diote M.D.P. izeneko alderdia «très proche du P.C.P.» dela, «un Parti Communiste n.º 2». Hots, gauza bitxia, gero eta sartuago dago ministerietan, ekonomi-sailean batez ere.

Beste talde batzuk ere marxista dira; nahiz ez beti P.C.P.-arekin oso harreman onetan.

Berdintsu gertatzen da Armadaren barruan. Diniz d'Almeida-ren "RAL-1" «gorria», Othelo de Carvalho-ren «COPCON» delakoa, PCP-aren adar militar gisa mugitzen dira: teoriar ez-baina praktikan harrekin ados agertuz. Gauza bertsua Moniz Barretoren «dinamización cultural» horren taldeak. «Gauchistak» noraino dauden komunistak ofizialekin haserre, zail da neurtzen: gerorak erranen.

la-ja beldurrik gabe, bera, eman daiteke "superazio"-en lerrokada: Spinola, Costa Gomes, Vasco Gonzalez, Rosa Cutinho... eta, behar-

bada, kale-gatasak gogortzen bada, Othelo de Carvalho ere.

—oO—

Orain komunikabideen guduketa da.

"Republica" egunkaria... "Renaissance" irratia...

Jakina: bertako "langileek" jokatzen dute, sekula ez Komite Zentralak. Hau «dépassé par la base» omen dago... Norke sinetsiko xinphekeria horiek?

"Republica"-ko langileek ez dute Soljenitsine argitaratu nahi izan, eta ez dituzte eman nahi Soares-en ideiak. «Kolore» hori oso ezaguna da. Eta lizifinaren arazorik ez dagoenez gero, buruak du kakoa.

Eta honi buruz, euskaldun batzuek «burgese» jokoan erortzeko beldur handiegia dutelako, hona hemen FRANTZIAN eta ezker-muturrean, «Republica» arazoari buruz irakurri dudana:

—Humanité Rouge» (moista) — Sozialistaren alde.

—L. C. R. (trotskista) — Jokabidea txartzat eman.

—O. C. 1. (trotskista) — Sozialistaren alde. Areago, Charles Berg-ek «Gobierno Mario Soares» eskatu baitu.

—Libération» (Sartre) — Artikulu ezin gogorragoak, G. Séguy batez ere lurrean jarritz.

—P. S. U. — M. F. A.-ren «bonapartismo»-ren kontra.

—Anarkistak — M. F. A.-ren «fazismo-kuntza» salatu dute.

—P. S. (Mitterrand) — Guztiz Soares-en alde, noski.

Frantziako ezker osoak kondentatzen du «Republica»-rekin gertatua, P. C. F.-ak ezik.

—oO—

Elizak faziismoa sostengatu zuela Salazar-en garailan? Zalantzarik ez dago. «Renaissance» irratieren arazo hori ikusi behar.

Aski litzateke, hortaz, segurtabide guztiek, hauzi zabal agirik bat, tebibista eta guzti; eta argi-eta-garbi erabaki beharrekoak erabakitea. Denek onartuko lukete. Zergatik ikutzen? Zergatik joko zikin hori? Joko zikinaren eskualdean sartuz gero, nor dira mugak?

—oO—

Dubcek eta Allende erortzen ikusi ditugu. Batean erresuma-kapitalismo teokratikoak aspiatua; bestean kapitalismo burges atzerakoia baztertua.

Portugalen ere, zoritzarrez, sozialismoaren hazia ondoko asteotan ihartuko ote den beldur gara; hildako landare xamurra gorritz edo buriz margoturik ikusiko badugu ere. Ezen J. Moreau sindikalistak esan duen bezala: La liberté d'opinion est un point qui ne peut être discuté; sans débat public, il n'y a pas de démocratie réelle ni de socialisme autogestionnaire».

Tamalgarría eta ezin larriago gertatze Apirilaren 25 loretsu harez zeritike Lisboa geure begirada genuen antitez, berrito ere etsi beharra.

LARRESORO

MUNDU BERRI BAT

“Hirugarren Munduaren” etorkizunari loturik gaude

Alfred Sauvy, estadistikarari eta demografo ezaguna da Frantzia. Bere bizitza guztia eraman du herri-ugartasunak eta ekonomiak gaur sortzen dituzten arazoak aztertzen. Liburu dezente idatzi du politik-ekonomiaz. Aurreakoia da eta asartu egiten da gehiengoaren irizarien aurkako arrazoak agertzen eta denon okerrak salatzen. Bere izan zen, autoren ugaltzek dakartzan ondoren kaltegarriki salatu zituzten artean lehenbizitako. Berak ikusi zuen, aurrez aldatzea eta beste askok baino lehen, nola zortzen gaitez iraultza. Eta ez zaio beti jaramonik egin, modoren kontra bait dago askotan.



Orain liburu berri bat, beste bat, azaldu du, irakur erraza bezain serio: "La fin des nations riches", nau da, ("Nazio aberatsen bukaera").

Ez dio egileak garrantzi gehiegirik erasten "materias primas" edo beharrezko materien urritasunari. Ez dio petroliaren eskasari aitoritzen gaiko ekonomia kinkaren errua. Hori seinale bat besterik ez dela dio, munduan dagoen nahastearen seinalea, baina ez zergatia.

Sauvyk dioenez, Sartaldea, bertan behera doa. Nazio aberatsen ekonomia, inflazioaren eta lan-eskasiaren harak joa dago. Bertan bizi den jende ugari bai eta adinekoek ere, seguridade bila dabilta eta kezka horrek custen die bere hartan. Irtenbiderik gabeko gizarteak dira, Esku-lanerako —berretaz ez bait dute nahi— atzerriko langileei edo egiten ditue.

Aberats izeneko nazio hauek ez dituzte luzaro menderatuko hirugarren munduko herriak. Beste hauek berriz, nahiz eta oso egoera desberdinetan izan, nahiz eta batzuk bakarrik izan lurrez aberatsak, badute altxor haundi bat: jendetza ugari eta gaztea.

Bere ustez, "hirugarren mundu" hortako jendetza oraindik ehunen bat urtetan asko haziko da, ez bait da oraindik antzu-bide zuzirik. Horrela, 2100. urtearen inguruan munduko jendetza hamar hamalau mila milioitan tinkatuko omen da. Orduan, hirugarren munduko herriek orain baino lau edo bost aldiz jende gehiago izango dute eta gehienek 20 urtetatik beharokoak.

Alderantziz, Sartaldeko jendetza urritzen ari da. 1945etik 1970era arte zerbait igo bazen ere, orain 1930ean adina jende dago. Gutxiegi da, Euro-

pa eta Ipar-Ameriketako herria era-berri dadin.

Egoera honen ondorenak lartzak izango dira: gure zibilizazioaren geroa ez dago gure semeen gain. Hirugarren munduko gaitzak etorriko dira gure lurretara, Sartaldeko lurretara. Afrika, asiak eta egoamerikan seme-alabek jasoko dute gure ondarea, gauzak aldatzen ez badira.

Gaurko ekonomia kinkaldian, azterketa honek dato berriak sarraztzen ditu. Orain jasaten ari garen u gorría ez da herri behartsu eta herri aberatsen arteko borrokaldi bat, herri gazte eta herri zaharren arteko borroka estua baizik.

Zalantzarik gabe, gure geroa orain hazi-bidean dauden herrien eskutan datza. Herri behartsuetan begiak jartzen ditugunean, ez dugu, bada, sentimenduz huteszko erabakirik hartu behar. Arazo politikoa bat dago tar-tean eta zer irtenbide ematen zaion, gure seme-alaben egunak halakoak izango dira. Sartaldeari, ez bere lekua, leku soil bat bederen gorde nahi badiogu datozten urtetan, onartu, aitortu eta sortu beharrek daduzkagu lotura berriak. Politika berri bat.

G. H.

ETXKO- ANDRE: IRAUN ARAZI ZURE ARROPEI ONOKO JABOI ONEKIN:

JABON LAGARTO

Zure garbiketa makinaz egiten ba'dezú ATOMIZADO LAGARTO — jaboia erabiliñ beti Eskuz ba'zabiltz, LAGARTO — jaboia bear dezú erosí

JABON LAGARTO, garbiketarako jaboí baxarra Etzexo-andrearentzat nekametik egokiens.

JABON LAGARTO!

Transportes

azkar s. a.

ERAMAN - EKARRIAK, KAMIOI AUNDIAK
Barcelona Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.
Donostitik egunero:
Iruña, Bilbo, Gasteiz, Alicante, Elche, Elda, Murcia, Cartagena, Granada, Almería, Santander, Valladolid, Zamora, Palencia, Salamanca.

Astean Irutan:
Malaga, Sevilla, Jerez de la Frontera, Cadiz, Lugo, Coruña, Orense eta Vizcaya joan etorriak.

Herrantrako bide nagusian, ERGOBIA auzoan, DONOSTIAN.
Urrutzikiñak: 552650 - 552654
Apartado 1381

Ez Merkenak

Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira ganadu on, indartsuak, Eta nora jo jakin bear du baxerritar burutsuak, Berobitzko aragi pillak; gafierra esne putzuak, Oieak guztiak berekin ditú Fanderfa'ko pentsuak.

FANDERIA

ERRENTERE!